

# Helburua Euskal Herria

## IKASTOLAK ez dira helburu» izenburupean

Roman Irigoien-ek idatzirikoa artikulua (EGUNKARIA 1993-VIII-13) hunkitu nau. Nik interpretatzen dudana moduan artikulua horretan bost ideia nagusi agertzen dira: 1. euskalduntzeari buruzko iritzia pertsonalak; 2. Elkarriren apologia; 3. PNVren joko politikoa gehien salatu duen pertsonaren (Txillardegiri) kontrako eraso, adizez honen mezuari indarra kentzeko asmoz edo; eta 4. PNVren irudi politikoa zuritzea. Ikus ditzagun banan-banan puntu gutxi hauek.

1. Ikastolak ez dira helburu. Roman Irigoienek dioenez «ikastolak berez ez dira helburu, helburua haurren heziketa eta Euskal Herriaren berreuskalduntzea da». Baina helburua hori bada, zergatik erabili dituzte ikastolekin teknika mafiosoak (ekonomikoki itozteko dirulaguntzak eragortzea e.a.)? Helburua Euskal Herria euskalduntzea bada, ez al litzateke logikoagoa izango euskararen alde ari diren guztiak laguntzea? Ikastolak indartzea, Eskola Publikoetako eredu euskaldunak sortu eta bultzatzea, irakasleagoa euskalduntzea e.a.? PNV eta PSOErentzat helburua Euskal Herria euskalduntzea bada, nola uler dezakegu AEK, IKA, EUSKALDUN EGUNKARIA eta euskararen alde sortzen diren antzeko herri ekintzak ito nahi izatea? Nola da posible Euskal Herria euskalduntzea Eskola Publikoan irakasle izateko orain dela gutxi egindako oposizioetan jokoan zeuden lanpostuetako ia erdia erdaldunentzat gordetzen direnean? Eta beste alor sozial batetara igaroz, zergatik aldatu dute funtzionarioak euskalduntzeko legea jadanik eskasak ziren profil linguistikoak eta epeak are bigunagoak bihurtuz? Nola da posible elebiduna den gizarte batean lantoki publikorako (posta) oposizioetan euskara ez eskatzea eta are grabego meritu gisa ez puntuatzea ingelesera, frantsesa, e.a. puntuatzen duten bitartean? Nola da posible erreforma politikoa burutu eta hamabost urtetariko dokumentu ofizialak soilik espainieraz bidaltzea edo informazio bulegotan erdaldunak edukitzea?

«Ikastolak ez dira helburu» dio Ramon Irigoienek. Nik ordea ikastolak helburu eta tresna äirela uste dut. Helburu badira bai baina deuseztatzeko Buesa eta espainiarren, PNV bame. Abertzaleentzat ordea ikastola tresna da, Euskal Herri euskalduna lortzeko baliabidea. Gertatutakoa Eskola Publikoa euskalduntzeko bada, zergatik desagertarazi nahi dituzte ikastolak? Zer dela eta santu bat biluztu beste santu bat jatzeko? Ez dugu oso azkarrak izan behar horren zergatia jakiteko? Ez dugu oso azkarrak izan behar horren zergatia jakiteko: Ikastolak indartzaile dira euskalduntze prozesuan eta gure klase politikoa ez ditu maite.

Adibide bat: Hego Euskal Herrian lau Goimailako Musika Kontserbatorio Publiko daude. Bada, oraindik orain ez dago inongo kontserbatoriotan musika euskaraz irakasteko plangintzarik, ezta profil linguistikoaren ezarpenik ere. Eta zein da guzti honen arduraduna? Zeinek eragotzen du profil linguistikoaren ezarpena? Donostiako Kontserbatorioan behinik behin PNV (Roman Zulaika). Zer gerta zitekeen ikastolen moduan Euskal Goimailako Kontserbatorioa eduki izan bagenu? Kontserbatorioetan euskarak bestelako tratamendua izan zezakeela, ziurrena.

### 2. Elkarrri elkarte goraipatuz.

Elkarriren helburuarekin bat etortzeak ez du esan nahi Euskal Herria espainiaratu nahian dabilzanegi egiten diegun kritika bertan behera utzi behar dugunik. Roman Irigoienek dioenez «batzuk partiduen kontsigna politikopean, beren kritikan maila pertsonaletara jaitzi dira, deskalifikatza.

XILLARDEGIREN JARRERA  
POLITIKOA DESLEGITIMATZEA  
PNV-REN JOKO POLITIKOA GEHIEN  
SALATU DUEN PERTSONA BAZ-  
TERTZEKO SAIOA DA; EUSKAL HE-  
RRIKO AZKEN BERROGEI URTEE-  
TAKO HISTORIAREN LEKUKO BE-  
REZIA ISILARAZTEKO SAIO AN-  
TZUA.

zioetara». Jarrera honen eredu berarentzat Txillardegiri izango litzateke: «PNVri 'traidorea' deitzen dionean agerian uzten dituzte honek bere maldutasun politikoa, dogmakeriak eta fobiak, bizitza politikoan zehar frakosorik frakoso eraman duen gizona (...) Betoz Elkarrriak eta ezkuta biez Txillardegia». Kasu honetan ondo dator euskal esanera zaharrak dioena: «Bertzeen zoria dakusa eta ez bere lepo-ko txerria».

### 3. Mezua neutraltzeko mezularia zinkitzea bide hobereana ohi da.

Txillardegiren norabide politikoa euskaltzale eta abertzalea erabat garbia da. Inoiz ez da Euskal Herriaz baliatu bere egoera pertsonala hobetzeko edo politikoa diruz betetzeko. Euskal politikan politikoa gutxi erakus dezakeen ondarea da hau: are gutxiago alderdi espainiarzaleetan militatzen dutenen artean. PNV bame. Txillardegiren jarrera politikoa deslegitimatzea

PNVren joko politikoa gehien salatu duen pertsona baztertzeko saioa da, ez besterik; Euskal Herriko azken berrogei urteetako historiaren lekuko berezia isilarazteko saio antzua. Historiak ez du atzerako martxarik eta geratu dena nahiz eta telebistan ez ageri historiako geldituko da. Eli Gallastegi- ren obra gelditu den bezalaxe.

### 4. PNVren irudi politikoa zuritzea.

Roman Irigoien-en ustetan PNVek gidatzen duen politika 'eboluzionista' den bitartean Txillardegiren porrota 'bitarte-koak eta helburuak' bereitzeko gaitasun eza da. Ikus ditzagun bi puntu hauek.

a) Mugitzen den oro bilakaeran dago. Arazoa ordea garapenaren nondik norakoen interpretazioan datza. Nik dakidanez PNVren bilakaera politikoa abertzaleontzat tamalgaria izan da. Abertzale izatek (Arana Goiriaren garaian) estatutista eta erregionalista izatera (*Comuniön nacionalista*-tik frankismoaren erreformaraino), eta hortik gaur egun kontrainsurgentziaren zerbitzuan egotera. Bilakaera hau ez da nik asmatutako zerbitu, esandakoa historia da jadanik (Lorenzo, J.M., *Gudari*, Txalaparta Arg.), eta kontrainsurgentziari dagokionez Arzallusek berak egiaztatzen du azken hauteskundearen emaitza txarrak komentatzerakoan: «PNV oraindik beharrezkoa da Euskadiren gobernarritasunerako», eta azken bahiketarekin: «Etxe etxe bilatuko ditugu harapatu arte». Gaur egungo PNVren funtzioa politiko-poliziala da, gero eta polizialagoa, Euskadiren gobernarritasuna ziurtatzeko tresna. Atutzak, Praderak eta orokorrean burukide jeltxideek abertzaleen kontra botatuko mehatxuek (lanik eta bizi baldintzarik gabe utzeraino), ertzaintzaren jokamoldeak, (Turko, GAL-i buruzko informazioa ezkatzea, e.a.) eta egunero abertzaleok jasotzen dugun errepresio bortitzak PNVren benetako zeregin politikoa-poliziala agerian uzten dute.

b) Azkenik baliabide eta helburuen bereiztasunari dagokionez, PNVren aparatu politikoa bere jarraitzaileak lasatzeko betidanik erabili duen ipuina dela esan beharra dago. Munduko alderdi abertzale guztiak aberriaren hizkuntza eta hezkuntza helburu estrategikoa dute, taktika guztiak gainetik. PNVk ordea gai horiek PSOEren eskutan utzi ditu lotsarik gabe. Beraz hemen inork ez ditu baliabide eta helburuak nahastan peneubetar batzuek izan ezik.

Horregatik gero eta gehiago gara PNVren izaera espainiarzalea kritikatzan dugunok eta baita PNV ordezkatuko lukeen alderdi baten sorreran laguntzeko prest gaudenok. Borroka armatua kritikatu gabe baina erizpide politikoa abertzaleei tinko eutsiko liezaiekeen alderdia. Betor lehen bait lehen!

**JOSE IGNACIO LZ. DE LUZURIAGA**

MUSIKOLOGOA

## BERRIAK ZIRI



**JOSEBA AGIRRETXEA**  
ETBko aurtezko EGIN

«Telebistako eztabaidak ez dira unibertsitateko mintegiak»



**MIGUEL VALLEJO**  
Jarrera alabaketa- ren espezializatutako psikologoa EL MUNDO

«Beroak ezkontza hauste gehiago eragiten du»



**BALTHUS**  
Pintorea EL PAIS

«Pintura bizitzeko modu bat da»



**ANTONIO MARTIN**  
Txindularia MARCA

«Ez dut kalerik nahi, nirea konpon dezaten baizik»

## ZAKILIXUT

© Olariagak

